

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko uztaila

Prentsa ohar hau Tour de Franceko Grand Départ ekitaldiari buruzko datuetan berrikusi da, berau osatzeko prozesuan antzemandako akats baten ondorioz

2023ko uztailan, guztira 803.887 ostatu-gau izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2022ko uztailan baino % 4,9 gehiago

Atzerritar jatorriko sarrerak estatukoak baino gehiago dira, % 10,7 gehitu baitira, eta guztizkoaren % 53,4 dira

2023ko uztailan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 2,9 igo dira, eta ostatu-gauak % 4,9, urtetik urterako ehunekoetan, Eustatek landutako datuen arabera. Erregistratutako 394.297 sarrerek 803.887 ostatu-gau ekarri dituzte.

Sarreraren % 53,4 eta ostatu-gauen % 53,9 atzerritar jatorrikoak izan dira; hala bada, sarrerak % 10,7 igo dira, eta ostatu-gauak % 12,3.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Uztaila 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/07	m/m-12 (%)	2023/07	m/m-12 (%)	2023/07	2022/07
EUSKAL AE	394.297	2,9	803.887	4,9	2,04	2,00
Estatukoak	183.848	-4,8	370.856	-2,5	2,02	1,97
Atzerritarrak	210.449	10,7	433.031	12,3	2,06	2,03
Araba/Álava	58.425	13,3	108.703	18,3	1,86	1,78
Estatukoak	34.425	20,1	66.860	21,4	1,94	1,92
Atzerritarrak	24.000	4,8	41.843	13,7	1,74	1,61
Vitoria-Gasteiz	45.011	18,7	85.201	24,0	1,89	1,81
Bizkaia	178.324	2,3	348.400	3,4	1,95	1,93
Estatukoak	85.542	-11,2	165.798	-9,2	1,94	1,90
Atzerritarrak	92.782	19,0	182.602	18,2	1,97	1,98
Bilbao	117.819	1,4	231.470	3,3	1,96	1,93
Gipuzkoa	157.548	0,1	346.784	2,9	2,20	2,14
Estatukoak	63.881	-6,3	138.198	-3,3	2,16	2,10
Atzerritarrak	93.667	5,0	208.586	7,4	2,23	2,18
Donostia / San Sebastian	94.064	4,7	219.876	4,3	2,34	2,35

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldagintza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Abuztuaren 21a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban, 58.425 sarrera eta 108.703 ostatu-gau erregistratu dira, iazko uztailan baino % 13,3 eta % 18,3 gehiago. Bizkaian, aldiz, sarrerak % 2,3 gehitu dira, eta ostatu-gauak % 3,4. Guztira 178.324 sarrera eta 348.400 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 157.548 sarrera erregistratu dira 2023ko uztailan, 2022ko uztailan baino % 0,1 gehiago, eta 346.784 ostatu-gau, iazko hil berean baino % 2,9 gehiago.

Hiriburuka, sarrera kopurua % 18,7 igo da Gasteizen, % 4,7 Donostian eta % 1,4 Bilbon. Era berean, iazko uztailarekin alderatuta, ostatu-gauak % 24,0 gehitu dira Gasteizen, % 4,3 Donostian eta % 3,3 Bilbon.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,04 egunekoa izan da 2023ko uztailan, iazko hil berean baino gehixeago, orduan 2,00 egunekoa izan baitzen. Batez besteko egonaldiak adierazten du zenbat egun ematen dituzten bidaiariek batez beste gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean, eta ez Euskal AEn guztira zenbat egun ematen dituzten.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Uztaila 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/07	p.p. *	2023/07	p.p. *	2023/07	m/m-12 (%)	2023/07	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	72,8	0,8	82,0	1,3	128,43	8,6	105,36	10,3
Araba/Álava	68,0	5,1	79,8	4,4	88,53	5,7	70,68	11,9
Vitoria-Gasteiz	69,5	6,2	84,2	5,0	76,14	8,0	64,08	14,9
Bizkaia	68,9	0,7	78,4	1,4	105,33	8,3	82,55	10,2
Bilbao	73,6	1,4	82,5	2,2	116,12	8,4	95,74	11,3
Gipuzkoa	79,1	-0,5	87,1	0,1	165,37	10,1	144,00	10,3
Donostia / San Sebastian	84,2	-0,8	90,8	0,2	208,64	7,6	189,39	7,9

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Abuztuaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko betetze-maila % 72,8 izan da uztailan, plazaka neurtuta, eta % 82,0, gelaka neurtuta. 2022ko uztailarekin alderatuta, igoerak ehuneko 0,8 eta 1,3 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Eguneko batez besteko tarifa edo ADRa 128,43 euro izan da Euskal AEn 2023ko uztailan ("logela bakarrik" erregimenean gela bikoitz bainugeladunari aplikatua). Horrek esan nahi du % 8,6ko igoera izan dela iazko uztailaren aldean. ADRa 165,37 euro izan da Gipuzkoan, 105,33 euro Bizkaian eta 88,53 euro Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira: ADRa 208,64 euro izan da Donostian, 116,12 euro Bilbon eta 76,14 euro Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, RevPar edo gela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 105,36 eurokoak izan dira 2023ko uztailan, iazko hil berean baino % 10,3 gehiago.

Ekitaldi asko egin dira Euskal AEn 2023ko uztailan, eta eragin positiboa izan dute hotel-establezimenduen betetze-mailan. Hilaren lehen asteburuan **Frantziako tourraren Grand Départ** egin zen, eta, ostiraleko (ekainak 30), larunbateko eta igandeko (uztailak 1 eta 2) gauetan, atzeritar jatorriko ostatu-gauak 42.444 izan ziren. Hau da, hiru egun horietan erregistratutako ostatu-gauen % 61,3, edo, bestela esanda, hil osoan baino 7,4 puntu gehiago ehunekotan. Bizkaian, 30.064 ostatu-gauetatik % 65,4 atzeritar jatorrikoak izan ziren; Gipuzkoan, berriz, 18.307 ostatu-gau izan ziren, hau da, % 62,5. Araban, aldiz, gehiago izan ziren jatorri nazionaleko ostatu-gauak, 9.880 ostatu-gau guztien % 54,8. Gelakako betetze-maila, Tourraren egun nagusian, uztailaren 1ean (larunbata), % 83,3koa izan zen Euskal AE osoan, % 80,8koa Bizkaian (% 83,9koa Bilbon), % 84,2koa Gipuzkoan (% 87,9koa Donostian) eta % 88,9koa Araban (% 91,7koa Gasteizen).

Uztailaren 7an, 8an eta 9an, **Bilbao BBK Live** jaialdian, gelen betetze-maila % 83,0 izan zen Bilbon, hil osoan erregistratutakoa baino puntu erdi gehiago ehunekotan.

Gasteizen, hotel-establezimenduetako gelen betetze-maila % 89,1era iritsi zen uztailaren 15eko eta 16ko gauetan, **Ironman Vitoria-Gasteiz** egin zen asteburuan hain zuzen, hil osoan baino ia 5 puntu gehiago ehunekotan.

Bestalde, **Donostiako Jazzaldia** egin zen bost egunetan (uztailaren 21etik 25era), gelen betetze-maila % 90,8 izan zen, hil osoan bezalaxe. Hil horretan ia 220.000 ostatu-gau izan ziren hiriko hotel-establezimenduetan.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHaren erantzun-tasa % **89,7** izan da 2023ko uztailan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal A Eko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62